

“Kortxoeneak elkartu gaitu” manifestua:

Kortxoeneak Donostiako kulturari bost urtetan eman diona nekez kalkulatu dute inpaktu sozial, kultural eta ekonomikoaren neurgailu modernoek. Donostiatik oso aparte ibili ez den edonork daki guztion intereseko espazioak sortzeko bertute ezohikoa izan duela: inor musika kontzertu batengatik joango zen, beste inor bideo-forum batengatik, hirugarren bat hitzaldi batengatik, sorkuntza tailer batera gerturatuko zen beste hura, edo bertso-eskolara besteren bat. Gisa guztietako jendea ikusi dugu Kortxoenean hau edo bestea egiten, hura edo bestea ikusten: antzerkigile profesional eta amateurak, anarkista kontrakultural eta kultur teknikariak, bizilaguna eta Bilbo, Iruñea edo auskalo nongo lagun zaharra, hipsterrak eta zaharrunoak. Egiazki, ez da erraza aurkitzen halako aberastasuna izan duen kultur gune bat Donostian.

Horregatik, aski larritu gaitu ikusteak Kortxoenea egun batetik bestera eraits zitekeela bertako egitasmo eta gogo guztiekin, modu baldar eta ez-erregularren bidez gainera. Zinez harritzen gaitu nola den posible bizi ditugun garaiotan, ahoa *partaidetza* eta *erabakitze*ko eskubidea bezalako hitzez betetzen zaigularik, Kortxoenearen eta auzoaren inolako iritzi eta hartu-emanik gabe egitea halako zerbait. Zinez harritzen gaitu, halaber, nola den posible bizi ditugun garaiotan, eraikuntza sektoreak egin triskantzekin, Kortxoenea bezalako proiektu kultural landu, autogestionatu eta zabal bat enpresa eraikitzaile baten interes hutsengatik suntsitua izatea. Ezagun denez, boluntario lanean oinarriturik, guztion ongia baino ez du sustatu Kortxoeneak, urte luzez erabat abandonatua egon den leku bat biziberrituz. Zinez bizi nahi dugu hori guztia gauetik egunera interes ekonomiko partikular batzuen kariatz pikutara bota daitekeen hiri batean, gizarte batean?

Gure harridura multiplikatu egiten da ikusita operazio hori kulturala eta nazioartekoa izango omen den 2016. urtearen bezperatan egin dela. Aurretik ere *Donostia 2016* proiektuarekiko eszeptiko egoteko arrazoiak falta ez baziren, Kortxoenearen eraiste saiakerak harekiko zalantzak areagotu besterik ez ditu egiten. Donostiak 2016an –eta aurrerantzean– espektakuluaren kulturaren hiriburu baino zerbait taxuzkoagoa izan nahi badu, konbentziturik gaude ezinbestekoak izango zaizkiola Kortxoenea bezalako proiektuak; horiek sustatu eta babestea. Denbora omen da mundu honetan halabeharrez gertatzen den gauza bakarra, eta haren mende dira urteak, kulturalak zein nazioartekoak; Kortxoenearen patua, baina, ez da ordena horretakoa. Batzuen ekin gogotsuak sortu zuen bezala hondora lezake beste batzuen eginahal tristetak.

Hau guztiagatik eskatzen diogu Donostiako Udalari, adeitasunez, Kortxoenearen biziraupena berma dezala berandu baino lehen. Ika-mika alderdikoiez haratago, Donostiako kulturaren zati handixkoa dugu jokoan, galtzen direnean oinazez faltesten diren egitasmo horietako bat alegia.

Lehen esan dugun Kortxoenearen aberastasun horren adibide da testu hau sinatzen dugunon zerrenda. Ziur aski, ez zen erraza izango beste nonbait gu guztiok elkartzea. Hala ere, denok hartu dugu parte, alde edo moldez eta gure ugaritasunean, Kortxoeneak antolatu dituen hamaika jardueretako batean, eta gu guztioi iruditzen zaigu aurrerantzean ere beste horrenbeste antolatzeko parada eduki beharko luketela Kortxoeneako zahar, gazte, txiki, handi, emakume, gizon eta sailkatzen hain errazak ez diren lagun guztiek.

Atxikimenduak:

- Anari Alberdi (Musikaria)
- Miren Amuriza (Bertsolaria)
- Maite Arroitauregi “Mursego” (Musikaria)
- Axier Aspiroz (Bertsolaria)

- Jokin Azpiazu Carballo “Okerreko” (Musikaria)
- Aitor Azurki (Idazlea)
- Klara Badiola (Aktorea)
- Marc Balfagón (Musikaria)
- Ander Barriuso (Elektrika grabaketak)
- Odei Barroso (Bertsolaria)
- Giorgio Bassmatti (Musikaria)
- Juanba Berasategi (Zinemagilea)
- Txerra Bolinaga (Musikaria-RIP, Carrocerias Betoño)
- Joseba B. Lenoir (Musikaria)
- Donostiako Piratak
- Santi Eraso (Kultur kudeatzailea)
- Estricalla (Musika taldea)
- Fernando Apoa (Musikaria)
- Beñat Gaztelumendi (Bertsolaria)
- Aiert Goenaga (Kultur eragilea)
- Goragaleak (Musika taldea)
- Oier Guillan (Idazlea)
- Lide Hernando “Liher” (Musikaria)
- Roberto Herreros (Musikaria)
- Hilkar (Musika taldea)
- Humilitate (Musika taldea)
- Mikel Iturria (Blogaria)
- Itziarren Semeak (Musika taldea)
- Amaia Iturriotz (Bertsolaria)
- Koldo Izagirre (Idazlea)
- Edorta Jimenez (Idazlea)
- La Jodedera (Musika taldea)
- Ane Labaka (Bertsolaria)
- Iker Lauroba (Musikaria)
- Lisabö (Musika taldea)
- Leire Lopez Ziluaga (Astrako kidea)
- Metrokoadroka Kolektiboa (Antzerki taldea)
- Madeleine (Musika taldea)
- Alaia Martin (Bertsolaria)
- Jon Martin (Bertsolaria)
- Aitor Mendiluze (Bertsolaria)
- Xabier Montoia (Idazlea eta Musikaria)
-)Fermin Muguruza (Musikaria eta zinemagilea)
- Eneko Olasagasti (Zinemagilea)
- Markel Ormazabal (Idazlea eta musikaria)
- Pelax (Musikaria)
- Pelayo y sus malditos (Musika taldea)
- Physis Vs Nomos (Musika taldea)
- Pord (Musika taldea)
- Porrotx (Pailazoa)
- Igor Rezola “Dizebi” (Graffitigilea)
- The Rodeo Idiot engine (Musika taldea)
- Ibon Rodriguez (Musikaria)
- Rafa Rueda (Musikaria)

- Beñat Sarasola (Idazlea)
- Skakeitan (Musika taldea)
- Joseba Tapia (Musikaria)
- Andoni Tolosa “Morau” (Musikaria)
- Txan magoa
- Maddi Ane Txoperena (Bertsolaria)
- UK Bill (Musika taldea)
- Urban 13 kolektiboa
- Nacho Vegas (Musikaria)
- Willis Drummond (Musika taldea)
- Iban Zaldúa (Idazlea)
- Yaw (Musika taldea)
- Ze Esatek! (Musika taldea)